

Deba  
ETORKIZUNA ORAIN



2022ko APIRILA 18. zbk.

# ZABALDU DUGU HILERRI BERRIA





Debaberri 18  
2022ko apirila

Azaleko argazkia: Ander Salegi

## AURKIBIDEA

2	.....Udaletxetik
3	.....Itziarko Toki Entitate Txikia
4-5	.....Artzabalgo hilerria
6-7	.....Dagigun
8-9	.....Emakumeen Nazioarteko Eguna
10-11	.....Gobernu Plana. 2022rako proiektuak
12-13	.....Elkarrizketa. Nagusilan elkarte Debako boluntarioak
14	.....2022ko aurrekontuak
15	.....Luzaroko estalpea
16	.....Desfibriladoreak
17	.....Tene Mujika
18-19	.....Laburrak
19	.....Agenda
20	.....Kolaborazioa. Euskal Kostaldeko Geoparkea
21	.....Kolaborazioa. .....Itziarko Auzo Udala
22-23	.....Kolaborazioa. Alderdiak
23	.....Gobernuarekin harremana egiteko bideak
24	.....Elkarrizketa. Sabas Bedialauneta, Zurrumbilo Ur-kirol Elkarte zuzendaritzako kidea



Deba Udala

© Argitaratzailea: Debako udala.

Egilea: SharinF5 Kooperatiba

Lege Gordailua: L.G.  
SSPRAXIAS/FUNCIONES  
EJECUTIVAS918-2012



GILEN GARCÍA BOYRA - DEBAKO ALKATEA

## HERRIA JOSTEN

Aurreko Debaberri urtearen balantzea egiterakoan, azken urteotan sortzen, garatzen, gauzatu ari garen proiektuen inguruan aritu nintzen. Eta indarra jarri nuen ez bakarrik gauzak egitean, baizik eta horien nolakotasunean, eta bereziki, sortzeko prozesuaren ezaugarrietan, lanerako sortzen ari garen elkarlanean oinarritutako gobernantza ereduan.

Udal Gobernuak jarri zuen oihala, eta udaleko langileek, alderdi politikoez, herriko eragileek eta norbanakoez aberastu dute haien lanarekin, kolore desberdinetako hariekin. Neurri desberdinetako puntadekin josten.

Horrela ari gara Deba berria sortzen. Bakoitza beretik, ekarpen propioa eginez, elkar osatuz. Guztion artean tapiz koloretsua sortuz, herria josten. Eta niri, Udalaren izenean eskerrak ematea dagokit zuen borondatea proiektu honetan jartzen ari zaretenoi, zuen ekarpenak egiten dituzuenoi, eta oraingoan espazio hau horretarako baliatu nahi dut. Eskerrik asko.

## HILANDO EL PUEBLO

En el número anterior de Debaberri, dediqué este espacio a hacer balance del año transcurrido. Hablé sobre los proyectos que estamos creando, desarrollando, llevando a cabo estos últimos años. Y puse el énfasis no sólo en el hecho de hacer cosas, sino en su cualidad, y especialmente en las características del proceso de creación, en un modelo de gobernanza basado en la cooperación que estamos creando para trabajar.

El Gobierno Municipal aportó el lienzo que ha sido enriquecido con hilos de diferentes colores a través del trabajo del personal municipal, partidos políticos, agentes locales y ciudadanía. Que lo han cosido con puntadas de diferentes tamaños.

Así estamos creando la nueva Deba. Cada persona desde su posición, aportando y complementándose entre sí. Creando entre todas un colorido tapiz, hilando el pueblo. Y a mí, me corresponde dar las gracias en nombre del Ayuntamiento a quienes estáis poniendo vuestra voluntad y aportáis en, y a este proyecto, y esta vez quiero aprovechar este espacio para eso. Muchas gracias.

# Presentan como modelo la actual colaboración entre Deba e Itziar en las Juntas Generales de Gipuzkoa



Gatazkatik kooperaziora egin du jauzi Debaren eta Itziarren arteko harremanak. Horrela laburbiltzen du Gilen García alkateak. Gaur egungo harremana eredu gisa aurkeztu dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

El alcalde de Deba, Gilen García, y la alcaldesa pedánea de Itziar, Arantza Egaña, comparecieron el 2 de marzo en las Juntas Generales de Gipuzkoa en la Ponencia creada para debatir sobre la revisión de la norma foral que regula los distritos municipales guipuzcoanos. Ambos han destacado el modelo compartido de gobernanza y el beneficio que supone para la ciudadanía el modelo de relación alcanzada entre ambas instituciones.

Ambos representantes trasladaron a las y los integrantes de las Juntas de Gipuzkoa información geográfica, histórica, sociológica, etc. sobre el municipio de Deba, así como el recorrido del proceso de creación de la entidad local menor. Ambos representantes destacaron la búsqueda conjunta y colaborativa de nuevos modelos de gobernanza.

“Del conflicto a la cooperación”, así resume el alcalde de Deba, Gilen García, la relación entre las instituciones de Deba e Itziar. Y este resultado final lo ha convertido en un ejemplo para otros lugares que quieran hacer un proceso de transformación en entidades menores. Arantza Egaña, alcaldesa pedánea de Itziar, comparte con el alcalde la creación de un nuevo modelo.

Egaña ha destacado en su intervención el desacuerdo que “se salvó con un trabajo duro, y puedo decir con orgullo que en este momento hemos conseguido desmontar algunos fantasmas surgidos en la propia Deba, en virtud del convenio que firmamos por primera vez en diciembre de 2020”. El convenio fue acordado por unanimidad entre los tres partidos de la corporación municipal de Deba y la Entidad Local Menor de Itziar.

García ha puesto en valor la capacidad de llegar a acuerdos y ha destacado el potencial humano, político y social existente. En esta línea se enmarca también la decisión de cerrar en el pleno de febrero de la corporación de Deba la cuestión del requerimiento que quedaba abierto.

La práctica de los últimos meses ha demostrado que la figura de las entidades locales menores tiene una serie de ventajas para la ciudadanía, sobre todo en términos de proximidad, tanto a nivel físico como psicológico.

Gracias a la cooperación se han determinado cuáles son los servicios que corresponden a cada entidad y se ha decidido cómo compaginarlos, teniendo en cuenta sus competencias.

Se ha facilitado la labor de las instituciones y sobre todo se ha mejorado el servicio a las personas habitantes de todo el municipio.





## Berdintasuna, aniztasuna eta soiltasuna oinarri dituen hilerri berria zabaldu da





**Artzabalena, zentral elektrikoaren eta Mendarora doan bide zaharraren gainean dagoen mendi mazelan kokatuta dagoen hilerri berria martxoaren 25ean zabaldu da. Udalbatza osatzen duten hiru alderdietako ordezkariak, gai honetan lanean aritu diren udal langileetako batzuk eta herritarrak egon dira bertan. Gilen Garcia alkateak eskerrak eman dizkie gai honekin lanean aritu direnei, hala nola, batzordeari.**

Azpiegitura garrantzitsua dela herriarentzat esan du irekiera ekitaldian, eta debarrek aurrerantzean orain arte izan ez dituzten zerbitzuak izango dituztela herrian bertan nabarmendu du.

Hilerri berri honek Udalean zein herrian, eta orokorrean gaur egungo gizartean, sustatzen diren balore batzuk ditu oinarri: pertsonen arteko berdintasuna eta aniztasuna, eta umiltasuna. Edozein jatorri, ideologia edo pentsamenduko senitarteko eta lagunei agur esateko aukera ematen du, horretarako prestatutako beilatokietan eta aretoan. Orain arte ez bezala, herrian bertan egin ahal izango zaizkie agur ekitaldiak senitarteko eta lagunei, hortaz.

Hilerriari buruzko informazioa jasotzen duen aldizkaria banatu du Udalak etxeetara, eta bisita gidatuak ere egin dituzte hamarnaka herritarrek. Azpiegiturari buruzko iritzia emateko galdetegia ere bete ahal izan dute herritarrek. Herritarrengandik jasotzen diren ekarpenak udaleko hilerriko batzordean aztertuko dira.

Hurrengo urratsa, eta batzorde horrek izango duen egitekoa, hilerri zaharretik berrirako lekualdatzea egiteko prozedura zehaztea izango da. Udalaren nahia da prozesu hori ondo egitea, herritarren nahiak entzunda, eta haiek zainduz.



### TIPOS DE ENTERRAMIENTOS:

#### Nichos individuales colocados en la pared

Existen 54 nichos individuales empotrados divididos en 6 módulos y 9 nichos por módulo.

#### Nichos subterráneos

30 nichos subterráneos: 5 módulos, 6 nichos por módulo.

#### Sepulturas o columbarios bajo tierra para cenizas.

Hay espacio para 972 urnas de cenizas en columbarios bajo tierra: 54 módulos por módulo de 18 unidades de capacidad.

#### Parque de las cenizas.

#### El osario.

### NORMAS DE USO:

Se utilizará el modelo de solicitud municipal de uso de los servicios del cementerio. La solicitud, se presentará en el servicio de atención ciudadana con una antelación mínima de 24 horas a la celebración y siempre en días laborables. En breve también se ofrecerá online. En el caso de que se presenten varias solicitudes para el uso del mismo día y lugar, el criterio de concesión de la autorización será el orden de prelación. Los acondicionamientos y/o servicios auxiliares de las salas serán responsabilidad de quien solicite su uso, debiendo dejar la sala en el mismo estado en que se encontró.

Corresponde a la persona física o jurídica que tramita la solicitud el pago de la/s tasa/s establecida/s en las ordenanzas fiscales municipales.

### TASAS:

#### Enterramientos en nicho:

Bajo tierra: 363 €

En la pared: 313 €

**Enterramientos en columbario: 104 €**

**Enterramientos en fosa común o en el parque de cenizas: 70€**

#### Exhumaciones de Nicho:

Bajo tierra: 173 €

Pared: 123 €

**Exhumación del columbario: 82€**

**Prórroga anual pasados los 5 años: 15 €**

**Utilización de velatorio por día: 400 €**

**Uso del Salón de Actos: 150 €**



# Lehen urratsa egin dugu

**Dagigun, egin dezagun, genion uztailen prozesua aurkezteko ekitaldian, eta lehen urratsa egin dugu Zumardiari buruzko prozesuarekin. Martxoaren 29an egin da Dagigun partaidetza gunearen lehen prozesuaren emaitzaren partekatze saioa. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan bildu diren herritarrei eta eragileetako ordezkariari aurkeztu diete emaitza Gilen Garcia alkateak eta proiektuaren zuzendari Itziar Gonzalez arkitektoak. Haiekin egon dira, halaber, proiektuaren zuzendaritza Gonzalezekin partekatzen duen Igor Ahedo EHUKo irakaslea eta gazteek osatutako dinamizatzaile taldeko kideak.**

Eskerrak emateko ekitaldia ere izan da. Alkateak eragile politikoei, sozialek eta norbanakoei egin duten lana, izan duten prestutasuna eskertu ditu, bereziki dinamizatzaile gazteena. Azken hauek egin duten lana aitortzen duen diploma ere jaso dute.

Prozesuan zehar askotariko ekimenak egin dira, eta jasotako ekarpenak ere asko eta izaera desberdinekoak izan dira. Gonzalezek nabarmendu du bereziki jaso direla ekarpenak hirigintzari lotutako gaietan, horregatik, hurrengo urratsa ere ildo horretan egingo da. Aurkezpena egin eta hurrengo egunean bertan, martxoaren 30ean, bildu da lehen aldiz hirigintzako batzorde mistoa. Izan ere, jasotako ekarpenek ere, 2007an egindako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra -HAPO- eguneratu beharra

erakutsi dute. Eta lan horrekin hasiko dira, osaera berrikuntza proposatuz, izan ere, ordezkari politikoei, udal langileek eta herritarrek osatzea aurreikusten da.

Zumardiko parkeari eta inguruko eremuei buruzko eztabaida-proposamenari esker, administrazioaren eta herritarren artean elkarlanean egindako asmo handiko metodologia bat garatu ahal izan da, Debako Udaleko Partaidetza Batzordearen inplikazioari eta gardentasunarekiko eta kalitate demokratikoarekiko konpromisoari esker.

Egindako lana argitalpen batzuetan jaso da, [www.deba.eus](http://www.deba.eus) webgunearen Dagigunen atalean partekatuko direnak. Bertan jasotako ekarpenetako batzuk dira ondorengoak:

**Parte-hartze**ari dagokionez, bederatzihilabeteetan zehar guztira 250 herritarrek (% 8,5) parte hartu dute prozesuko une eta fase desberdinetan. Herritarren % 86,10ak oso ondo baloratzen dute Debako Udalak partaidetza-prozesuak egitea, herritarren interesei buruz hitz egiteko. DAGIGUN dinamikak ezartzen jarraitu beharra nabarmendu dute.

Herritarren ekarpenen kalitateak eta kantitateak argi eta garbi islatzen du herritarrek udalerriko **naturagune eta paisaia-eremuen kalitate**arekiko duten interesa, baita bertako eremu publikoen eta berdeguneen bizigarritasunarekiko interesa ere.

**Tren**aren trazadurari eta Debako kostaldearen hiri-aurrealdeari buruzko eztabaida sakona egiteko beharra agerian geratu da. Ildo horretan, Debako herritarrek trenaren trazadura, trenbideak eta trenaren pasabideak berriz definitzeko aukeren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa ezagutzeko beharra sentitzen dute. Kostaldeko hiri-aurrealdea ere hobetu nahi dute, aparkalekuak eta irispideak lekualdatu nahi dituzte, eta berriz diseinatu nahi dituzte itsasoaren eta estuarioaren aurreko pasealekua, Miramar hotela zegoen eta hutsik dagoen orubea, eta frontoi zaharra, gutxiegi erabiltzen dela uste baitute.

Herritarrek Zumardiko parketik gertu jarri nahi dute Paleolitoko ibilbidearen hasiera eta **Geoparke**aren informazio-puntua, baina lehendik dagoen eta erabiltzen ez den eraikinen bat berrerrabiliz (kioskoa, azpiestazio elektrikoa edo Kresala).

**Jarduera ekonomiko**ari dagokionez, hotelen estrategia jasangarri bat garatzeko beharra, baita turismo-ostatuak arautzeko araudi bat ere, bertako herritarren eta biztanle mugikorren arteko oreka bermatzeko.



**Ekipamendu**ei dagokienean, erabiltzen ez diren eraikinak berrerrabiltzea proposatzen da, kultura-ekipamenduak, kirol-ekipamenduak edo Geoparkeko ekipamenduak kokatzeko.

**Mugikortasun jasangarria** ere aldarrikatzen da. Garraio publikoen aldageltoki bat sortuz, esaterako. Aparkaleku publikoak edo emakidadunak sortzea ere proposatzen da, hondartzaren aurrealdean eta Zumardiko parkearen inguruetan dauden lur gaineko aparkalekuak libre uzteko.

**Etxebizitza** eskuratzeko politikak eta **hirigintza-plangintza** berrikusteko politikari dagokienean

proposamen asko jaso dira. Esaterako, tokiko etxebizitza-plan bat idaztea; apartamentu turistikoak arautzeko plan berezi bat idaztea; gaur egungo hirigintza-plangintza berrikustea; tren-geltokiaren eta Zumardiko parkearen ingurua antolatzeko proiektua idaztea; Hirigintza Batzorde bat sortzea, premiazkoenak diren eztabaida teknikoak eta herritarrak planifikatzeko, eta Hirigintza Plan Orokor berriaren irizpide eta helburuen dokumentua prestatzeko, etab.



# Emakumeen zikloa ardatz hartuta egin dira Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekimenak

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, aurten ere, egitarau oparoa osatu du Berdintasun batzordeak. Era eta gai ezberdinetako jarduerak antolatu diren arren, “aurten saiakera berezia egin nahi izan da emakumeen zikloa erdigunean jarri eta eragile ezberdinekin lanketa interesgarriak burutzeko”, Itziar Irizar Beristain Berdintasun eta politika feministen zinegotziaren esanetan.

Genero-desberdintasun estrukturalaz gain (zaintzaren gaia, kasu), mendeetan zehar, emakumeek hainbat gai eraman behar izan dituzte ezkutuan. Gure amek, gure amonek... ez dute hilekoaz, menopausiaz, euren gorputzez oro har, jendaurrean lasai hitz egiteko aukerarik izan. Isilpeko kontuak izan dira, emakumeen artean inoiz aipatu izan direnak, baina gizartean naturaltasunez onartu edo tratatu ez direnak.

Horregatik landu dira gai horiek martxoaren 8aren testuinguruan hainbat eragilek, tartean Udalak, antolatutako ekimenetan. Eta lan hori, gainera, adin desberdinetako emakumeei bideratutakoa izan da, bakoitzaren bizitzaren zikloa aintzat hartuta dituen interes eta beharrei erantzuteko asmoz.

Esaterako, Gaztelekuko arduradunek 4 saiko formakuntza egin dute DBH 4. mailako ikasleentzat, euren hilekoa ezagutu dezaten. Saiok Deban eta Itziarren egin dira. Tartean, higiene menstrualaz ere aritu dira, eta ikastaroa amaitutakoan hileko-kopen eta konpresa berrerabilgarrien banaketa egin berri dute gaztetxoek. Material hori banatzeaz gain, horien erabilpena azaltzeko eta gisa honetako produktuak erabiltzearen garrantziaz aritzeko aukera izango dute herritarrekin.







Kanpainarekin bi helburu bete dira: batetik, hilekoa eta emakumeen izaera ziklikoa agerian jartzea, eta, bestetik, produktu berrerabilgarriak ezagutaraztea eta horien garrantzia bistaraztea.

Gai honi lotuta, hilekoari buruzko tailerra ere egin da. Emakumearen zikloa, zikloaren faseak, fase bakoitzaren eragin emozionala, elikaduraren garrantzia, higiene menstrual... arlo ezberdinak landuz. Eta, ondoren, menopausiari buruzko kafe-tertulia, Deba-Itziarko talde feministak antolatuta. Kasu honetan, bertan bildu ziren pertsonak esperientziak, ezinegonak, ezagutzak edo ez-egagutzak partekatzeko aukera izan zuten.

“Hilekoaz edo menopausiaz hitz eginez, emakumeak erdigunean jartzea izan da egitarau honen helburua. Hainbeste urtean ezkutuan eraman behar izan diren kontu huez lasai hitz egiteko guneak sortu, herri mailan kontzientziazio ariketa egin, eta naturala dena modu naturalenean tratatzeko”, Irizarren ustez.

Askotarikoak izan dira antolatutako ekimenak. Bete ingoiau antzezlanak ikusi zuten Burugorri eraikinean, DIT Deba-Itziarko talde feministak deitutako manifestazioa egin zen martxoaren 8an bertan, herriko ipuin kontalariek Emakumearen Eguneko ipuin kontaketa egin zituzten eta Chhaupadi dokumentala proiektatu zen.



# 33 compromisos pa

## Forman parte del plan de gobierno o

**Udal Gobernuak 2019ko udazkenean aurkeztu zuen 2019-2023 legealdirako 100 neurriko Gobernu Plana. 2022rako 33 neurri aukeratu dira, eta, aurreko urteetan bezala, planak dituen 5 atalen arteko oreka bermatu nahi izan da.**

Cabe destacar, por ejemplo, la intención de seguir actualizando el Ayuntamiento en cuanto a Organización Municipal y el proceso de estabilización de puestos de trabajo.

Analizar en los Servicios Sociales la necesidad de poner en marcha un centro público de gerontología para personas

mayores en Deba en los próximos años y definir los pasos a seguir.

En el apartado de Desarrollo Local, además de seguir colaborando con las diferentes instituciones, continuar con el estudio de remodelación de la construcción del Mercado y completar el Plan de Accesibilidad.

En cuanto a Cultura y Patrimonio Público, el objetivo es continuar con la labor de puesta en valor del euskera y la promoción de proyectos culturales.

En el apartado de Igualdad y Participación, para finalizar, los objetivos principales serán integrar la igualdad de género en todos los ámbitos y dar continuidad a la participación.



# ara 2022

## de 100 medidas



### UDAL ANTOLAKETA

2. Udalaren lanpostu zerrenda birlandu eta berriz onartzea.
4. Udaltzain burua aukeratzeko hautaketa prozesua gauzatzea.
8. Deba Musikal Patronatua eguneratzea.
9. Gaztelekuarekin hitzarmena berritzea.
11. Udalerriko argiteria eguneratzea.
14. Artzabalgo biribilgunean irisgarritasun azterketa egitea.
20. Herri antolaketa orokorra aztertzea.

### GIZARTE ZERBITZUAK

23. Zahartzaro aktiboa lantzeko jarduerak sustatu.
24. Jubilatu, pentsionista eta adinekoen osasuna zaintzeko prebentzioa indartzea.
27. Menpekotasun egoeran dauden herritarrentzat zerbitzuak indartzea.
28. Adinekoentzat gerontologiako zentro publikoaren aukera aztertzea.
31. Ludoteka zerbitzua martxan jartzea.
35. Herriko kooperazio taldeei diru-laguntzak ematen jarraitzea.
40. Gaztelekuan mantentze lanak gauzatzea.
42. Ikasteko gunea egokitzeko azterketa egitea.

### TOKIKO GARAPENA

43. Lurralde ikuspegia txertatzea.
45. Itziar-Deba auzo udalarekin elkarlana gauzatzea.
46. Itziar-Deba enpresa parkearekin elkarlana sustatzea.
56. Merkatuaren eraikuntza birmoldatzea.
61. Deba-Mutriku zubia konpontzea.
62. Irisgarritasun Planaren azterketa eta eguneratzea.

### KULTURA ETA HERRI ONDAREA

67. Aisialdiko euskarazko eskaintza indartzea.
68. Turismoan euskara balioan jartzea eta bisitariei mezua helaraztea.
70. 22. KORRIKAN parte hartzea.
75. Kultur Elkartearekin elkarlana sustatzea.
76. Kultur agenda aztertu eta elikatzea.
78. Herriko jai eta egun esanguratsuenak sustatzea.

### BERDINTASUNA ETA PARTE HARTZEA

85. Genero berdintasuna eta jasangarritasuna arlo guztietan.
87. Emakume talde ezberdinak identifikatu eta beharrak aztertzea.
89. Berdintasunarekin zerikusia duten aldarrikapen egunak babestu eta lantzea.
97. Uda Kirola egitasmoa indartzea.
98. Udalerriko puntu ilunak identifikatu eta diagnostikoa egitea.
100. Legealdian zehar eta amaieran Gobernu Planaren balorazioa egitea.



## “Nos parece importante nuestra labor, aportamos ayuda a la comunidad”

Esperanza Beitia, Garbiñe Iriondo, Itziar Aranberri, Jesus Mari Salegi, Teresa Aranberri, Josune Artetxe y Kontxi Aizpurua forman parte del grupo de personas voluntarias de Nagusilan de Deba. Nagusilan, voluntariado social de mayores, nació en Donostia hace 25 años y la sede de Deba se formó el año 2002, por lo que celebran el vigésimo aniversario, que hemos aprovechado para hacer un repaso.

Nagusilan es una asociación sin ánimo de lucro compuesta por personas voluntarias. Su misión es acompañar a las personas mayores en situación de soledad no deseada. Promueven, además, el envejecimiento activo mediante el compromiso solidario, cubriendo necesidades de apoyo social y afectivo.

“Aldaketa soziala sustatzen dugu, behar dutenei laguntza emanaz beren etxeetan eta abar”



**Nagusilan cumple 20 años en Deba. ¿Qué valoración hacen?**

La valoración que hacemos de nuestro trabajo es muy positiva. La asociación de salud, está bien y con ánimos.

**La COVID-19 ha golpeado especialmente a ciertos colectivos, entre ellos el de las personas mayores y que necesitan ayuda. ¿Cómo han gestionado la situación y cómo se encuentran en este momento?**

La situación de la COVID-19 nos afectó en lo que respecta a nuestra actuación en el centro de día, ya que desde marzo de 2020 no nos han autorizado a entrar en el mismo. Seguimos en contacto con las personas usuarias en fechas

señaladas, como cumpleaños, navidades, etc., pero hasta ahora desde el exterior. Estamos a la espera del permiso para seguir ejerciendo nuestra labor de acompañamiento.

**¿Ha cambiado mucho la situación desde que se creó la asociación hasta la actualidad en el cuidado de mayores y a la hora de trabajar el envejecimiento activo?**

Seguimos trabajando el ámbito del envejecimiento activo, participando a lo largo del año, en los diferentes talleres de formación, etc. que se están impartiendo. La situación ha cambiado respecto al contacto por la COVID-19, y aunque en Deba no podemos, en la central está habilitado el 'Hilo de plata', etc.

**La asociación está formada por personas voluntarias. ¿Cómo invitarían a otras personas a participar?**

Actualmente somos nueve voluntarios y voluntarias. Invitaremos a otras personas pidiéndoles que nos acompañen y vean la labor que hacemos. El ser voluntario nos aporta que recibimos más de lo que damos y aprendemos mucho de las personas mayores.

**¿Concretamente qué hacen ustedes?**

Les acompañamos en las diferentes actividades, sesiones de canto, cartas, bingo, etc. durante 1,30 horas, 2 días por semana durante todo el año, excepto en agosto, que hacemos vacaciones.

**Nagusilan impulsa la transformación social. ¿Cómo?**

Promovemos el cambio social prestando apoyo a quienes lo necesitan en sus casas, etc., siempre que los servicios sociales lo autoricen.

**¿Participan en las iniciativas que se organizan en el pueblo? ¿Por qué es importante?**

Hemos participado en algunas actividades en el pueblo. Nos parece importante nuestra labor, aportamos ayuda a la comunidad.

**¿Les gustaría mencionar algo más?**

Como aspecto importante mencionamos la formación que se está impartiendo a todo el personal para mejorar la calidad de vida y la apertura de otros canales del conocimiento, mediante conferencias abiertas al público.

**“Boluntario izateak ekartzen digu ematen duguna baino gehiago jasotzen dugula eta adinekoengandik asko ikasten dugula”**



2019an Debabarrenako Nagusilaneke Debegek ematen duen Gure baloreak saria jaso zuen. Argazkiak: Nagusilan.

**Mantener varias partidas creadas en Servicios Sociales en 2020 y 2021, reforzar la actuación en Cultura y dar continuidad al camino emprendido en Participación prioritarios en los presupuestos para 2022**



## Gizarte Zerbitzuak, kultura, partaidetza eta jasangarritasuna 2022. urteko aurrekontuetan ardatz nagusiak



**Gizarte Zerbitzuetan 2020an eta 2021ean sortutako hainbat partida mantentzea, Kulturako jarduna indartzea eta Partaidetzan hasitako bideari jarraipena ematea dira 2022ko aurrekontuak osatzeko jarritako lehentasunezko gaiak, Itziar Irizar alkate orde eta ogasuneko zinegotziak horiek onartu ziren osoko bilkuran azaldu zuenez.**

8,9 milioiko aurrekontu bateratua izango du Debako Udalak 2022an. Udaleko aurrekontua 8.566.224€ da, Auzo Udalekoa 1.032.561€ eta Deba Musikal Patronatukoa 601.759€.


Covid-19ak areagotutako krisi sozialaren, sanitarioaren, ekonomikoaren eta ingurumen krisiaren testuinguruan osatu dira aurrekontuak, eta egoera horri ere erantzuteko pentsatu dira Irizarren esanetan. Horregatik, Gizarte Zerbitzuei dagokienez (608.000€), pandemia garaian sortutako hainbat zerbitzu edo diru-partida (Zaintza Sarea, Hezkuntza errefortzua, elikagai bankua...) mantendu beharra ikusi da. Gainera, Eguneko Zentroan zenbait inbertsio aurreikusi dira: leihoak, argiteria, guneak bereizteko ate irristailua ...

Kultura eta aisialdiari lotuta aurreko urteetan egindako murrizketak kontuan hartuta, horiek berreskuratzeko partida jaso da %10 igota 2022rako aurrekontuetan. Gainera, Tene Mujikari lotutako jardueretarako 35.000€ko partida ere sortu da.

Energia berriztagarriekin eta eraikinen jasangarritasun energetikoarekin lotutako partidak indartu eta berriak sortu dira: Kiroldegan eguzki plakak instalatzea (45.000€), Udalari dagozkion instalazio elektrikoaren ikuskapenak egin eta legean jartzea (20.000€), argiteria publikoa eguneratzen jarraitzea (20.000€), eta eraikin publikoen jasangarritasun energetikoaren azterketari jarraipena ematea, esaterako.

Ekonomiaren Sustapena eta Landa Garapenari dagokionez, merkatuko eraikina birmoldatzeko azterketarekin jarraituko da eta Merkataritza Berrindartzeko Udal Plan Berezian (PERCO) zehaztutako ekintza planarekin baita ere. Proposamen berri bat ere badago, ibilbide naturalei balioa ematea helburu duena (6.000€). Bestetik, historiaurrearen bailarako proiekturako 2022rako ere beste 30.000€ aurreikusi dira. Horiek urtez urte gordetzen ari den kopuruei gehituko zaizkie.

Hirigintzari dagokionez, Txosten eta irizpen teknikoaren partida handitu da (40.000€) zenbait azterketa egiteko asmoz (Agirre jauregiko eta Gizarte Etxeko eraikinetako hezetasun eta isolamendu arazoak, Aldats pilotaleku gainaren birgaitzea, eliza inguruko hezetasun arazoak, merkatuko eraikina birgaitzea, hondartza eta ibaiko paseoa txukuntzea, Agirretxeko depositua handitzea...). Horrez gain, Europako funtsetara aurkezteko partaidetza tailerretan aztertutako Zumardiko guneari buruzko proiektu basikoa (65.000€) egingo da. Eta zerbitzuetako zenbait partida sortu dira, udaletxeko fatxada eta Ondargain txukuntzeko, adibidez.





## Luzaro eskolan jarritako estalpearekin jarduera gehiagorako gune bat irabazi da

Otsailaren erdialdean estreinatu zen Luzaro eskolako patioa estalpea, bi hilabetez egindako lanen ondoren. Eskolak espazio librean estalitako gune baten beharra atzeman zuen, covid-19ak eragindako osasun egoerak areagotu zuena, eta Udalari esku-hartzea eskatu zion. Eskolarako sartu-irteerak taldeka egin behar ziren unean babesa egon zedin patio osoa estaltzen zuen karpa jarri zuen Debako Udalak bertan, baina gerora gunea iraunkor bihurtzeko estalpea egitea erabaki zen.

Pozik agertu zen Gilen Garcia Boyra alkatea estalpea jarri berritan: “hemendik aurrera beste gune eroso batez gozatzeko aukera izango dugu, batez ere gaztetxoek”, esan du.

Estalpe iraunkorra jartzeko orduan bilatu da eskolak izan dezan estalpe finkoa erabilera anitzetarako. Eta helburua izan da ez izatea hormigoizko kaxa bat, horregatik, propio eskatu zen proiektuan estalpea egiteko egurra erabiltzea, goxoagoa izan dadin. Zati bat libre utzi da nahi izatekotan espazio horri beste erabilera bat eman ahal izateko.

Estalpea jartzearekin batera hobekuntza batzuk ere egin dira gune horretan. Eskumako hormigoizko eustorma garbitu da, eta frontoia berriro margotu da. Horrekin batera, eta gunea erosoagoa eta egoteko goxoago izan dadin, banku luze batzuk jarri dira, aurretik ez baitzegoen eserlekurik. Modu horretan, jolaserako bakarrik ez, elkarrekin egoteko gunea ere irabazten da.

Aplibur enpresari esleitu zitzaion lana 271.777 (+BEZ) eurotan. Eusko Jaurlearitzak emango duen diru-laguntza batekin %60 ordainduko da.



# El Ayuntamiento instala desfibriladores en diferentes puntos del municipio

Ante una parada cardiaca, los primeros 10 minutos son críticos y si la persona no recibe ayuda en ese tiempo, sus posibilidades de supervivencia se reducen considerablemente. Razón por la que es importante que haya desfibriladores en el municipio, y al alcance de las personas. Están instalados en puntos donde se reúne gente y algunos se han instalado en la calle para que puedan utilizarse en horario ininterrumpido.

El desfibrilador es un dispositivo electrónico que trata la parada cardiaca cuando ésta es consecuencia de la fibrilación del corazón (en la fibrilación el corazón tiene actividad eléctrica pero sin eficacia mecánica). Para hacer frente a este problema hay que desfibrilarlo: mediante unas descargas eléctricas para hacer que el corazón vuelva de nuevo a su correcto funcionamiento. Esa es la función que tiene el desfibrilador.

En este momento hay 5 aparatos instalados.

- Eroski (en horario comercial).
- Polideportivo (en su horario).
- Local de la Cruz Roja (en su horario).
- Soportales del Ayuntamiento (24 horas).
- Campo de fútbol Errotazar (en su horario).

En breve se van a instalar otros dos:

- En el puerto, al lado de los servicios (24 horas)
- En las instalaciones municipales del paseo de la playa, al lado de Itxas-gain (24 horas).

Los aparatos son fáciles de utilizar, pero ayuda que haya personas que sepan utilizarlo de antemano, por lo que el Ayuntamiento va a ofrecer formación específica a agentes deportivos, personal de comercio y hostelería. Por otro lado, se ofrecerán sesiones informativas a la ciudadanía.



**En caso de urgencia,  
hay que avisar siempre al 112.**

## **CÓMO ACTUAR:**

- Valorar si la persona está consciente.
- Llamar al 112.
- Abrir las vías respiratorias. Valorar si respira o no (escuchar, sentir, ver).
- Coger el desfibrilador y colocar los parches.
- Seguir lo indicado por el desfibrilador y, en su caso, iniciar el masaje cardiovascular (30:2 = 30 compresiones sobre el esternón + 2 respiraciones por vía oral con la nariz cerrada.).
- No dejar sola a la víctima hasta que llegue la asistencia sanitaria y seguir con el 112 en el teléfono

**Udalak kirol eragile, dendari eta tabernariei formakuntza espezifiko eskainiko die. Bestalde, gainontzeko herritarrentzat informazio saioak egingo ditu, desfibriladorea nola erabiltzen den ahalik eta jende gehiagok jakin dezan.**





*Itziar Irizar alkate ordeak eta Amaia Zinkunegi euskara teknikariak aurkeztu zuten saria. Argazkia: Ander Salegi*

## Tene Mujikaren omenez

**El Ayuntamiento de Deba está celebrando el 40 aniversario de la muerte de Tene Mujika realizando trabajos y actos de diversa índole durante el curso 2021-2022. En enero se dio a conocer el trabajo ganador de la beca que otorga el Ayuntamiento en colaboración con la editorial Elkar. Por otra parte, a principios de mayo se presentará el libro de Erika Lagoma y Estitxu Fernández ganadoras de la anterior edición de la misma beca. Por otra parte, se ha realizado un concurso de ilustración sobre la imagen de la escritora debarra.**

Jon Artano kazetari zestoarrak irabazi du 2022ko Tene Mujika beka, Ameriketara ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta gure artean dabilzan hainbat amerikarrenak kontatu nahi dituen proiektu batekin. Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolaturiko beka honek. Aurten aurkeztutako proiektuen artean Artanorena eman du irabazletzat Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, eta orain urtebeteko epea izango du kazetariak lana burutzeko, gero liburu gisa argitara dadin.

Aurreko urteko bekaren bi sari ematea erabaki zuen epaimahaiak. Lehen emaitza, Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek amatasun feministaren inguruan idatzi duten liburua, maiatzaren 5ean, 19:00etan aurkeztuko da Kultur Elkartearen. Bigarren lana, Jon Abrilek egindakoa, berriz udazkenean aurkeztuko da.

## IRUDIA BERRITZEA

Ilustrazio sariketa ere egin da Mujikaren irudia berritzeko. Herritarrek egindako bozketak bidez irabazi du Murtziako Yecla herriko Javier Jareñok Tene Mujika ilustrazio sariketa. Bi lan aurkeztu ziren sariketara. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egon ziren erakusgai jendeak bozka eman zezan. 63 pertsonak bozkatu zuten. Irabazleak 37 boto jaso zituen, eta besteak, Dulce Maria Fene galiziarrek egindakoak, 22. Balio gabeko 4 boto jaso ziren.

27 urte ditu Jareñok, eta disenu grafikoa eta bideogintza aritzen da. Bere ikasketak ikus-entzunezko eremuarekin lotuta daude (Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Ikus-entzunezkoen eta Ikuskizunen Errealizazioko Goi Mailako Teknikako Gradua). Aurretik, Feneko Curuxa Nova saria irabazi du (2019), eta iaz, berriz, Portugaleteko tira komiko onenaren saria (2021).

Obra sortzeko, natura irudikatu nahi izan du Mujikaren poesiaren omenez, haren erretratuaren bidez. Ez du kolorerik erabili nahi izan bustoa apaintzen duen *horror vacui* estiloa erabiltzean nabarmentzen diren siluetei pisu handiagoa emateko. Marraskia eskuz egindako zirriborro batekin hasi zuen, eta gero digitalizatu egin zuen.

## El 1 de mayo finaliza el plazo de inscripción para presentar trabajos en Animadeba

El Festival Internacional de Cine de Animación Animadeba se celebrará del 7 al 10 de septiembre en Deba. La de este año será la decimoquinta edición. El 1 de mayo finaliza el plazo de presentación de cortometrajes, que competirán en la Sección Oficial y en el apartado Nuevos/as Directores/as-UPV. La inscripción debe realizarse a través de la plataforma Filmfreeway. Diez de los trabajos presentados serán seleccionados para competir en la Sección Oficial. En la edición de 2021 de Animadeba se presentaron 1.502 películas de 98 países de todo el mundo, de las cuales veinte fueron seleccionadas por la organización para participar en las dos secciones a concurso.

## 'Bastiñuixan' kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzeko egitasmoa gauzatzen ari da

Debako Udalak eta Urtxintxak "Bastiñuixan" izeneko egitasmoa jarri dute martxan. Kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzea du helburu. Horretarako, martxoaren 15ean, 22an, 29an eta apirilaren 5ean, Urtxintxako dinamizatzaileen laguntzaz jolasak egin dituzte 3 eta 9 urte arteko haurrek.

## Apirilaren 30erako aurkeztu behar dira euskal artista bisual berrien lehiaketan parte hartzeko lanak

Euskal artista garaikide berriek haien lanak jendaurrean erakusteko dituzten zailtasunak eta dagoen diru iturri murrizta ikusita, Arte Eskola bizirik taldeak proposatuta Kultura batzordeak esku-hartzea

erabaki zuen. Eta bi taldeek elkarlanean lehiaketa bat antolatu dute. Oinarriak [www.deba.eus](http://www.deba.eus) webgunean daude argitaratuta. Saria 4.000 euro izango da, erakusketa egin ahal izateko.

## Hainbat eragilek antolatuta egin dira aurten inauteriak

Askotariko ekimenak egin dira otsailaren bukaeran eta martxoaren hasieran, kaldereroak, lehenik, eta inauteriak ospatzeko, ondoren. Osasun egoerak erabat baldintzatu ditu azken hilabeteetan pertsonen egunerokoa bezala kultura eta aisiari bideratutako denborak eta espazioak. Iragarpena egiteko orduan kultura zinegotzi Aritz Larrañagak egindako gogoetaren berri eman zuen: "Debako

eragileek, Udalak bezala, herritarrentzat hain garrantzitsua den aisian ekarpenak egin dituzte egoerak ahalbidetu duen neurrian. Eta une honetan, egoera bere onera itzultzeko bidea hartzen ari dela diote adituek, hortaz, erabaki dugu ahal den neurrian ohikoak diren hainbat ekimen berreskuratzen joatea, eta herriari bizia ematea", eta horrela izan da.



**Deba**  
ETORKIZUNA ORAIN

¿Tienes alguna propuesta o sugerencia para el ayuntamiento?

Iradokizunik, proposamenik baduzu udalari egiteko?

Kalean konpondu beharreko zerbaitek ikusi duzu?

Kezkaren bat duzu?

¿Te preocupa algo?

¿Has visto algún desperfecto que arreglar en la calle?

**ESAN UDALARI**

[www.deba.eus](http://www.deba.eus)



## El Ayuntamiento de Deba y la Fundación Cita Alzheimer firman un convenio para dos años

El alcalde de Deba, Gilen Garcia Boyra, y el representante de la Fundación CITA-Alzheimer, Iñaki Erguin Gurrutxaga, firmaron el convenio en el Ayuntamiento en febrero para los años 2022 y 2023. Se llevarán a cabo en Deba el Programa de Estimulación Cognitiva Exercita y el proyecto Cita GO-ON de envejecimiento activo, que investiga cómo prevenir el deterioro cognitivo cuidando los hábitos y estilos cardiovasculares. El primero se celebró por primera vez en el municipio en 2020 y el segundo es nuevo.

## Santa Katalinako bidea asfaltatu da

2021. urte amaieran egindako lanekin aspaldi egindako eskaera bati erantzun dio Udalak. 2019-2023rako Gobernu Planean baserri-bideak hobetzeko neurri bat jasotzen da, eta horri jarraituz egin da lan hau, aurretik San Rokeko bidearekin egin zen moduan. Bi lan horiek egitea jasota zegoen 2021eko aurrekontuetan. Errepide nagusitik Iparragirreko bide-gurutzeraino eta ondoren Artamendira doan bidean egin ditu asfaltatze-lanak Probisa Vías y Obras SL enpresak. Lanok 39.365 euroko aurrekontua izan dute.



## APIRILA

- 2** 10:45. **Txirrindulari lasterketa.** XXXI. Deba Saria (1. eta 2. urteko kadeteak)
- 7 KORRIKA**
- 9** 12:30 **Nazioarteko Dantza Eguna.** Kulunka Dantza Taldea. Ibaiko pasealekua
- 23** XXVIII. **Gipuzkoa Klasika txirrindulari lasterketa** (UCI maila)
- 23** **Liburuaren eguna.** Kultur Elkarteko plaza  
11:00-14:00 **Liburu azoka berezia**  
13:00 **bermut literarioa eta mikro irekia**
- 26** 11:00 **Ipuin lehiaketaren sari banaketa.** Udaletxeko Osoko bilkuren gela
- 27** 19:00 **Irakurketa Kluba.** 'Potosí', Ander Izagirre. Udal liburutegia
- 29** 19:00 **'Deba ehun hitzetan' lehiaketaren sari banaketa.** Kultur Elkartea

## MAIATZA

- 5** 19:00 **'Amatasun feminista'.** Erika Lagoma eta Estitxu Fernandezen liburuaren aurkezpena. 2020ko Tene Mujika beka. Kultur Elkartea
- 7** **Anes Arrinda Krosa**
- 7** **Merkatu txikia**
- 13** 18:00 **Banda Gaztea**  
19:00 **Kalean Kantuz**  
22:00 **Musika Bandaren Kontzertua.** Elizako kalostra
- 14** **Debarren eguna** (egitaraua)
- 15** **Debarren eguna** (egitaraua)
- 15** 11:00 **Euskal Herriko Sokatira txapelketa.** Zumardia
- 20** 12:00 **Itzalpeko Emakumeak erakusketaren** irekiera ekitaldia. Elizako kalostran
- 20** 22:00 **Kultur Ekin kontzertua.** Bidelapurrak+ Pelax. Kultur Elkartea
- 20-22 eta 27-29** **Euskal Antzerki Astea**

## EKAINA

- 4** **Merkatu txikia**
- 11** 22:00 **Ikasturte amaierako jaialdia.** Kulunka Dantza Taldea. Aldats pilotalekua
- 17** 20:00 **Kultur Ekin kontzertua.** Ibil Bedi. Kultur Elkartea
- 22** **Txirrindulari lasterketa.** XXVIII. Debako Bira Zikloturista
- 23** 22:00 **San Juan sua.** Plaza Berria
- 28** 22:00 **San Pedro zahagi erretzea.** Plaza Zaharra
- 28** **LGTBI+ Harrotasun eguna**

# Prehistoriaren bailara: Geoparkearen altxor ezkutua

Euskal Kostaldeko Geoparkean ehunka haitzulo daude kostaldetik gertu. Deba bailaran Pirinio eta kantabriar mendietako historiaurre aztarnategi kontzentrazio altuena daukagu. Gune txiki batean oso aztarnategi oparoak daude, besteak beste, Ekain, Urtiaga, Praileaitz, Ermitia, Astigarraga, Zerratu, Aizkoltxo, Kiputz, Langatxo edo Iruoin. Guztira 60 aztarnategi baino gehiago. Kontzentrazio altu horren arrazoi nagusia kobazuloen kokapena da. Haitzulo hauek kostaldetik gertu zeuden eta klima hotzagoan oso baliagarriak izan ziren gure arbasoentzat. Kobazulo hauek dira Geoparkearen altxor ezkutua eta gure historia ulertzeko aukera bikaina da, izan ere, bertan aurkitutako aztarnak gure arbasoen bizimodua eta ohiturak ulertzeko balio izan digute.

Erregistroa zabalagoa bada ere, aztarnategi gehienak eta oparoenak duela 15.000–10.000 urte bitartekoak dira. Garai hartan gure arbasoek inguruko kobazulo asko erabili zituzten, eta litekeena da kobazulo bakoitzak funtzionalitate desberdina izatea. Ermitia, adibidez, basahuntzak ehizatzeo kobazuloa izan zitekeen, eta Praileaitz ekimen sakratuen haitzuloa. Aztarnategi kopuru eta aniztasun horrek garai hartako gure arbasoen bizimodua ondo ulertzeko aukera ematen digu: nor ziren, nola mugitzen ziren, zer jaten zuten, nola moldatzen zituzten tresnak, nolakoak ziren beraien harremanak, nondik nora mugitzen ziren, zer pentsatzen zuten...

Esaterako, jakin izan dugu gure arbasoen bizimodua ehizari lotuta zegoela. Ez da erraza sinesten, baina kobazuloetan azaldu diren fosilei begiraturaz klimaren arabera paraje hauetan hartzak, panterak, mamutak, elefanteak, bisonteak, oreinak, elur oreinak eta basahuntzak nonahi ikusi zitezkeela ondorioztatu daiteke. Faunari dagokionez, Kiputzeko kobazuloa azpimarratu behar da. Arno mendiaren magaletan dagoen sima (zulo) txiki hau duela 20.000 urte inguru tranpa natural bat izan zen inguruko animalientzat. Aurkitutako 18.000 hezur pusketetatik abiatuta, Kiputz IX leizean aurkitu dira Iberiar penintsula osoko elur orein, bisonte eta orein multzo oparoenak. Guztietatik nabarmendu behar da estepako bisonte baten garezur osoaren aurkikuntza ikusgarria.

Azken 200.000 urteetan gure lurraldean bizi izan diren animalia zein gizakiek aztarna ugari utzi dituzte. Erronka ederra eta interesgarria daukagu aurrean Geoparkean eta gure historiaren puzzlea osatzeko aukera ematen digu. Horretarako, geologian urte askotan egin izan den moduan, ikerketa antolatu, kontserbazioa bultzatu eta dibulgazioa landuko dugu gure historiaren altxorak ezagutzera emateko.





## Aldaketa espedientea bertan behera geratu ondoren egonkortze aroan da Itziarko Auzo Udala

Bigarren legealdia beteko du laster Itziarko Auzo Udalak, 2015eko otsailean eratu zenetik. Urte batzuk igaro badira ere gogoratzekoa da herri ekimenak bultzatutako prozesu luze bezain gatazkatsua, eredu administratibo berria martxan jartzeraino. Entitate txikiaren txostenak hasiera batean Debako Udaleko talde politikoen babesa jaso bazuen ere, hainbat kontrakotasun piztu ziren ondoren, plataforma berri bat osatu eta deszentralizazio honen aurkako jarrerak zabalduz. Eredu berriak zekarren lurralde antolaketa zen desadostasun horren argudio nagusia. Hala ere Itziarko Auzo Udalaren prozesuak aurrera egin zuen, herritarren babes nabarmenarekin, Debako Udaleko gehiengoaren eta erakunde nagusien onespena jasota. Atzean geratu ziren aurkako alegazio eta helegiteak.

Bigarren legealdi hasieran “Toki Entitate Txikiaren aldaketa espedientea” delakoari onarpena eman zion Debako Udalak oposizioaren bozkaz, egungo ereduarekiko hainbat murrizketa proposatuz, batez ere lurraldetasun antolaketari eta industrialdeari zegozkionak. Auzotarren babesik gabeko eskaera izan arren prozedura juridikoak bere bidea egin zuen, eremuko biztanleei galdeketa berri bat egiteraino. Hortik, herritargoaren ezezkoa jaso zuen, %96ak aurkako iritziarekin. Ondorengo tramitazioa Gipuzkoako Foru Aldudiaren esku geratu zen, eta espedienteak hainbat akats omen zituelako, Debako Udalari eskaera egin zion zegokion erabakia har zezan. Horrela, espediente aldaketa bertan behera lagatzea erabaki zuen gehiengoz Debako Udalak joan den otsaileko osoko bilkuran.

Gorabeherak gaindituta egonkortze aroan da Itziarko Auzo Udala. Aurrerapausoak nabarmenak izan dira Debako

Udalarekiko elkarlanean, koordinazioa hobetu da, elkarriketa eta negoziaketa ildoak zabaldu dira. Horren lekuko dira aurrekontuetan lortu diren adostasunak, eta amankomunean garatutako zenbait egitasmo. Azpimarratzekoa da 2020an Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren artean sinatutako hitzarmena, talde politikoei aho batez berretsia. Eskumen faseak gainditu eta entitate txikiaren kudeaketa ahalmena aitortzen du, besteak beste, eta hainbat alor denboran landu eta hobetu beharrekoak diren arren, berebiziko garrantzia du erakundea sendotu eta bide berriak jorratzeko.

Espediente eta helegiteak bertan behera geratu izanak, orrialde hau igarotzeko aukera eskaintzen digu. Piztutako mamuak eta gaizki ulertuak albo batera laga eta orain arte jorratutako bidea berretsiz, elkarlana sustatuz etorkizuneko erronkei aurrera egiteko aukera bermatzeko bidea eskaintzeko digu Itziarko Auzo Udalaren ereduak.

## ehbildu



### LORATZEKO GARAIA

Negua lozorrorako ueña izaten da. Gizakiok sena erdi galduta badugu ere, naturarentzat deskantsu garaia da. Ilunagoa, hotzagoa, hezeagoa izan ohi da abendutik martxorako tartea; kimatzeko, transplantatzeko, ongarritzeko garaia.

Tarte hau aprobetxatu dugu zenbait barne lan bukatzeko, ate batzuk itxi eta beste batzuk irekitzeko. Bilerek, batzordeek eta prozedura administratiboen zuzenketek eman dituzte euren fruituak, eta horren adierazle dira Artzabalgo hilerriaren irekiera, Deba eta Mutriku lotzen dituen zubiaren lanen amaiera, Itziarko auzo udalaren modifikazio espedientea bertan behera uztea eta Zumardiko partaidetza prozesuaren emaitzen argitalpena.

Elkarlanaren eta negoziaketaren aroari jarraipena emango diogu. Herritarren beharrak identifikatzen, proposamenak jaso eta lantzen, partaidetza sustatzen... jarraituko dugu. Eskuartearen ditugu Ludotekaren proiektua, Artzabalera doan espaloia eraikitzeko proiektua, Merkaturia birmoldatzeko proiektua, Historiaurreko bailararen proiektua (ibilbide museistikoaren exekuzioa)...

Behin kimaketa eta ongarritze lanak eginda, hazi berriak ereinda, eta azken bi urteetako mugak gainditzen hasita, udaberriko eguzki epeletan loratzeko garaia da.

El invierno es tiempo de descanso y recogimiento. El intervalo de diciembre a marzo suele ser más oscuro, más frío, más húmedo; época de poda, trasplante, abonado.

Hemos aprovechado este tiempo para terminar algunos trabajos internos, cerrar algunas puertas y abrir otras. Las reuniones, comisiones y enmiendas a los procedimientos administrativos han dado sus frutos, y prueba de ello son la apertura del cementerio de Artzabal, la finalización de las obras del puente, la suspensión del expediente de modificación de Itziar y la publicación de los resultados del proceso participativo de la Alameda.

Continuaremos identificando las necesidades de la ciudadanía, recogiendo y elaborando propuestas, fomentando la participación... Tenemos entre manos el proyecto de la Ludoteca, el proyecto de la acera de Artzabal, el proyecto de remodelación del Mercado, el proyecto del Valle de la Prehistoria (ejecución del itinerario museístico), ...

Una vez realizadas las labores de poda y fertilización, con la siembra de nuevas semillas, y empezando a superar las limitaciones de los dos últimos años, es hora de florecer al cálido sol primaveral.

### DENBORA GUTXI DAGO!

Bi urte luzez krisi sozio-sanitario bat pairatu dugu. Denbora horretan Udalaren helburu nagusi eta bakarra premia gehien zuten kolektibo zaurgarrienei laguntzea izan da. Egun, badirudi pandemia bigarren toki batera uzten ari garela eta udalerriko bizitza berreskuratzen ari dela. Urtebete besterik ez da gelditzen legegintzaldi honi bukaera emateko, eta momento honetan gure lehentasuna da krisi honen ondorioz atzeratuta gelditu diren proiektuei berriro heltzea; hau da, gure udalerria garatzeko ezinbestekoak diren proiektuak, hala nola:

- Herrigunea eta hilerriaren arteko lotura
- Hondartzako paseoaren hobekuntza
- Etxebizitza tasatuak eraikitzea
- Gazteen etxebizitzaren alokairurako laguntzak
- Kirol eta hezkuntza instalazioak: Errotazar soropila, padel pista eta ludoteka
- Zumardiaren proiektua

Proiektu hauek gauzatu daitezkeen gure lana eta denbora eskainiko dugula konpromisoa hartzen dugu. Horretaz gain, asko kezkatzen gaituzten bi gai presente ditugu: etxebizitza eta aparkalekuak. Horretarako, berariazko lan-batzorde bat sortzea proposatu dugu.

Amaiera eman zaion beste gai bat, Itziarko Tokiko Entitate Txikia aldatzeko txostena izan da. Joan den otsaileko osoko bilkuran espediente hori artxibatzea erabaki zen, EH Bilduren eta EAJ-PNVren aldeko botoekin. Ez dugu iritzi-aldaketa hori ulertzen; izan ere, aurreko legegintzaldian DAK eta EAJ-PNVk osatutako gobernu-taldeak proposatu zuen aldaketa hori, eta gehiengo batez onartua izan zen. Iritzi aldaketa horrek etorkizunean Debako herriaren intereseei kalte egin diezaiekeela uste dugu.

### ¡QUEDA POCO TIEMPO!

Después de dos años largos padeciendo una crisis socio-sanitaria, en el que el objetivo primordial ha sido el de ayudar a los colectivos más desfavorecidos y vulnerables, parece que la pandemia pasa a un segundo lugar y la vida en el municipio va recobrando la normalidad tan deseada por todos y todas. Queda prácticamente un año de legislatura y es nuestra intención retomar aquellos proyectos que se están demorando a causa de esta crisis. Proyectos imprescindibles para el desarrollo de nuestro municipio, tales como:

- Paseo de conexión con el nuevo cementerio
- Mejora primera línea playa
- Construcción viviendas tasadas
- Ayudas alquileres jóvenes
- Instalaciones deportivas y educativas: césped Errotazar, pistas pádel y ludoteca
- Proyecto alameda

Por ello nos comprometemos a impulsar con nuestro trabajo y dedicación, de forma que se puedan hacer realidad. Además de esto no olvidamos dos asuntos que nos preocupan especialmente como son la vivienda y los aparcamientos, para lo que hemos planteado establecer una comisión específica de trabajo.

Otro tema que llega a su fin es el expediente de modificación de la ELM. En el pleno del pasado mes de febrero se decidió archivar dicho expediente con los votos favorables de EH Bildu y los de EAJ-PNV. Desde DebarrenAhotsa no entendemos este cambio de opinión ya que en la legislatura anterior el equipo de gobierno formado por DA y EAJ-PNV fueron los que propusieron esta modificación y por mayoría fue aprobada. Pensamos que este cambio de opinión puede suponer en el futuro un perjuicio para los intereses del pueblo de Deba.



## LEGEGINTZALDIAREN AZKEN TXANPA

Badirudi atzo izan zela, baina dagoeneko hiru urte igaro dira udal gobernu berria eratu zenetik, eta garaia da gobernu honen zergatia eta EAJ/PNVk gobernu horren prestakuntzan izan duen zeregina berrikusteko eta gogoratzeko.

Oroimena egiteko eta dena argi gera dadin, inbestidura-saioan plazaratu genituen ideia batzuk nabarmendu nahi ditugu. Ideia horiek orduko balio eta zentzu bera dute gaur.

Batzuek beste zeregin bat eman nahi izan ziguten, eta 2019ko maiatzaren 26an Debak hautestontzietan erabaki zuenari buelta emateko ardura hartu.

Ideia argien gobernu osatu nahi izan genuen, erabakiak ausardiaz hartu eta gainerakoei entzuteko. Ez genuen nahi gehiengo bat babesten zuen gobernu bat, oposizioari buruzko ezer jakin nahi ez zuena. Gobernu eraikitzaile eta irekia behar genuen.

Gure taldearentzat argi zegoen Debarren Ahotsarekin gobernu itun bat errepikatzeak akatsa suposatzen zuela eta ez zela positiboa izango Debaren etorkizunerako.

Baina ez genuen EH Bildurekin gobernu-hitzarmenik egin nahi izan, ez baikenuen bat egiten aldeztu zuen ereduarekin, eta uste genuelako ez zela positiboa izango beste alderdia isolatuta egongo zen indar-posizio bat sortzea.

Gure jarrerarekin, gutxiengoan dagoen gobernu sortzearen alde egiten dugu.

Hitzarmen egingarri eta eraginkor bakarra Debarekin eta Debarrekin zen eta da.

Itun hori izan da, da eta izango da beti gure konpromiso bakarra.

**Horixe delako gure borondatea, gure konpromiso bakarra eta gure izateko arrazoia.**

## RECTA FINAL DE LA LEGISLATURA

Parece que fue ayer pero ya han pasado tres años desde la formación del nuevo gobierno municipal, es hora de hacer repaso y recordar el por qué de este gobierno y el papel que EAJ/PNV ha tenido en la formación del mismo.

Por hacer memoria y para que todo quede claro, queremos destacar algunas ideas que lanzamos en la sesión de investidura y que hoy tienen la misma validez y sentido que entonces.

Algunos nos quisieron otorgar un papel distinto y cargarnos con la responsabilidad de darle la vuelta a lo que Deba decidió el 26 de Mayo de 2019 en las urnas.

Quisimos formar un gobierno de ideas claras, que tomase decisiones con determinación y escuchase al resto. No queríamos un gobierno, en el que amparándose en una mayoría, no quisiera saber nada de la oposición. Necesitábamos un gobierno constructivo y abierto.

Para nuestro grupo estaba claro, que repetir un pacto de gobierno con Debarren Ahotsa, suponía un error y no sería positivo para el futuro de Deba. Pero tampoco quisimos realizar ningún pacto de gobierno con EH Bildu, porque no compartimos el modelo que defendía y porque creíamos que tampoco sería positivo crear una posición de fuerza, en la que la otra parte estuviera aislada.

Con nuestra postura, apostamos por la creación de un gobierno en minoría. El único pacto que veíamos factible y efectivo, era y es con Deba y con las y los Debarras.

Este pacto ha sido, es y será siempre, nuestro único compromiso.

**Porque esa es nuestra voluntad, nuestro único compromiso y nuestra razón de ser.**



## UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

### GILEN GARCIA BOYRA

ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA  
HERRITARREN PARTAIDETZA

[alkatea@deba.eus](mailto:alkatea@deba.eus)

### ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK  
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

[itziaririzar@deba.eus](mailto:itziaririzar@deba.eus)

### ARITZ LARRAÑAGA UNANUE

ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA  
ONGIZATE POLITIKA  
EUSKARA ETA KULTURA (JAIK)

[aritzlarranaga@deba.eus](mailto:aritzlarranaga@deba.eus)

### ANTXON ETXEBERRIA LARREA

HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

[antxonetxeberria@deba.eus](mailto:antxonetxeberria@deba.eus)

### NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA

EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA  
EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA,  
MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

[nereearrizabalaga@deba.eus](mailto:nereearrizabalaga@deba.eus)

### ANTXOKA ELORZA ALTUNA

OBRAK, ZERBITZUAK  
eta INGURUMENA

[antxokaelorza@deba.eus](mailto:antxokaelorza@deba.eus)

Portu kalea, 1

+34 943 192 840

[info@deba.eus](mailto:info@deba.eus)



DEBAKO UDALA



Sabas Bedialauneta,  
Zurrumbilo Surf Elkarteko  
zuzendaritzako kidea  
Deba, 1990

“Emakumeak surfera  
erakartzen dituzten  
iniziatibak laguntzen  
ditugu”

**Zurrumbilo elkartea 2001. urtean sortu zen. Elkartea sortu zenean surfak ez zeukan gaur egungo lekua gizartean. 240 bazkide ditu une honetan eta 4 pertsonak osatzen dute zuzendaritza taldea, 2016an hartu zuen ardura talde honek. Surfa praktikatzeko azpiegiturak eskatzeko sortu zen elkartea, surf kultura, baloreak lantzea du helburu. Une honetan osasuntsu eta indartsu dago. Udalarekin elkarlanean hondartzako instalazioak hobetu dira azken hilabeteetan, obra bat eginda espazioa irabazi da.**

**Kirola bai, kasu honetan, surfa, baina balore batzuk ere lantzen dituzue, eta horiek lantzeko ekimenak egin, ezta?**

Kirol indibiduala da surfa, baina taldeko baloreak lantzen ditugu. Hori zaintzen saiatzen gara. Uretan nabaritzen da taldekidetasuna.

**Martxoaren 8a pasa berri dugu. Nolakoa da emakumeen parte-hartzea surfean? Elkartean?**

Emakumea surflari egiten hasi zenean Deban, gu aritu ginen zubi lana egiten Udalarekin. Aurten ere instalazioak erabiliko dituzte, eta lagundu ditugu. Ez dugu antolatzen emakumeentzat propio ekimenik, baina laguntzen ditugu inizatiba horiek. Bazkideen artean, gaur egun %24 da emakumea. Asko handitu da kopurua azken urteetan. Bazkide berrietan, esaterako, 2021ean ia erdia emakumea izan zen, eta horietatik asko 18 urtetik beherakoak. Iniziatiba horiek balio dute emakumeak integratu daitezen.

**Herriko ekimenetan ere parte hartzen duzue.**

Herriaren parte gara, eta izan nahi dugu. Zurrumbilo egunarekin, surfa herrira ekartzen dugu. Iaz 100 pertsonak parte hartu zuten, skate ikastaroak egiten dira, eragileak gonbidatzen ditugu, kontzertuetara etortzen direnean taldeak ere, gonbidatzen ditugu surfa egitera. Elkarlanean aritzen gara beste eragileekin. Federarten ere kolaboratzen dugu, eta horren bitartez bultzatzen dugu surf inklusiboa.